Guk antolatutako Ikastaroetan nabarmentzekoa da erregistratutako **izen-emate kopuru handia**, eskainitako plazen %63tik gorakoa, eta jarduera gehienetan jasotako **asebetetze indize altuak**, programatutako ikastaroetan batez beste 8,5 puntuko balorazioa jasota.

Ondoren jaso da 2016 ekitaldian antolatutako ikastaroen zerrenda:

Arlo Teknologikoko ikastaroak	Arloa	Orduak	Asistentzia	Balioespena
1. Energiaren Kudeaketa Sistema - ISO 50001 (online)	Energia eta Ingurumena	40	1	COIINA
2. Industria Instalazioetan Hodi Sistemarako euskarriak	Ingeniaritza Mekanikoa	24	16	8,9
3. PMP® / CAPM® Ziurtagiria jasotzeko prestakuntza	Plangintza eta Kudeaketa	40	11	8,4
4. Segurtasun Funtzionala: SIL Esleipena eta egiaztapena	Prozesu Ingeniaritza	24	23	8,2
5. Soldadura eta SES (Saiakuntza Ez-suntsitzaileak)	Ingeniaritza Mekanikoa	24	11	9,4
6. Hirigintza, Eraikuntza, Jarduera eta Industriari aplikatutako AKUSTIKA	Eraikuntza	20	15	8,0
7. Industria prozesuetako Hodien Diseinua eta Kalkulua	Ingeniaritza Mekanikoa	16	25	8,5
8. Proiektuen plangintza Primavera P6 ziurtagiriarekin	Plangintza eta Kudeaketa	20	10	8,1
9. Makina eta Koadro Elektrikoen egiaztapena	Ingeniaritza Elektrikoa	12	11	9,2
10. Makina eta Koadro Elektrikoen egiaztapena (2. edizioa)	Ingeniaritza Elektrikoa	12	11	8,9
11. Prozesu Ekipoen diseinua	Prozesu Ingeniaritza	16	21	8,1
12. Instalazioen BIM modelatuan espezialista, Autodesk Revit Mep 2017 erabiliz	Eraikuntza	60	11	6,9
13. Kontrol Balbulak, PSV eta oinarrikoen hautaketa	Prozesu Ingeniaritza	24	7	8,7
14. Presio-erakundeak (IV. edizioa)	Ingeniaritza Mekanikoa	16	15	8,8
15. Kalkulu hidraulikoak ingeniaritzan	Prozesu Ingeniaritza	16	9	8,5
16. Ekipoen ikuskapen mekanikoa eta Bulego teknikoa	Prozesu Ingeniaritza	16	11	(2017ra atzeratuta)
17. INGENIARITZA ETA MANAGEMENT: Finantza kudeaketa eta balio-sorkuntza	Plangintza eta Kudeaketa	16	8	(2017ra atzeratuta)
18. Egitura- eta energia-beira	Eraikuntza	12	2	(2017ra atzeratuta)

HITZALDIAK ETA JARDUNALDIAK

Asistentzia askeko Hitzaldiek eta Jardunaldiek elkargokideen arteko harremanak sustatzen laguntzen dute gaur egungo gaien inguruan, betiere eztabaida biziz jarraituta.



17 Jardunaldi
eta Hitzaldi
641 Izen-emate
Balorazio Orokorra
8,3

San Mameseko Estalkiaren aurkezpena IDOMen, 129 pertsona bertaratu ziren

Hitzaldiak eta Jardunaldiak	Laguntzaileak
1. Autokontsumoari buruzko Errege Dekretuaren faktore ekonomiko eta teknikoak	IBERDROLA, S.A.
2. Ctrl+B: Aukera profesionalak bilatu eta aurkitzea	C2B
3. Trenbidearen historia	Jose M. Navajas Larrabeiti
4. Kalkulu aeronautikoa: Bitxikeriak, akats-kasuak eta aukera txikiko probabilitateak	CT Ingenieros
5. Parisko goi-bilera, Garapen iraunkorra eta Industria	BC3-Basque Centre for Climate Change
6. Aurkezpena: WORLD HYDROGEN ENERGY CONFERENCE (WHEC2016)	AAE - Asociación Española de Hidrógeno
7. Profesionalen garaia da	Basque Pro
8. Nire argazki gogokoena: objektu baten garrantzia	Arveng
9. Profil teknikoko Errendimendu Handiko Ekipoen Kudeaketa	DBS-Deusto Business School
10. Atomoak volt eta biten kontra. Petrolio-garaiaren amaiera	Xabier Garmendia
11. Proiektu Zuzendaritzaren Estandar eta Joerak	Bilboko Ingeniaritza Eskola (EHU-UPV)
12. On-shore Energia Eolikoa Euskadiren Klima-aldaketaren kontrako Estrategia Energetikoan	IBERDROLA
13. San Mameseko estalkia handitzeko proiektuaren aurkezpena	IDOM, Ingeniería y Consultoría
14. Mutualitatea LAAB-en ordeztu aukera	AMIC
15. BIMen lan egiteko beharra. Allplan BIM: intuitiboa, eraginkorra eta emankorra.	All Plan
16. Nola ezarri industria kudeaketa aurreratua ingeniari gazteen laguntzaz: Unibertsitatea-Elkargoa-Enpresak eragileen arteko lotura»	Deustuko Ingeniaritza Fakultatea

Hitzaldiak eta Jardunaldiak

17. Margolaritzaren mezuak

Laguntzaileak

Jose M. Navajas Larrabeiti

KANPOKO PRESTAKUNTZA

Elkargoak berak antolatutakoen osagarri gisa, gero eta Prestakuntza Entitate eta Industria Enpresa gehiagok eskatzen dituzte lokalak Elkargoan beren ikastaroak emateko edo beren produktuen aurkezpen teknikoak egiteko.

Ondoren aurkezten dira BIIEOren instalazioetan egindako Kanpoko Prestakuntzako ikastaroak, eta gure elkargokideen eskura jarri direnak:

Kanpoko Prestakuntza – Prestakuntza laguntzak	Erakundea
1. EQ System Jardunaldia: Produkzioaren plangintza eta sekuentziak eta bezeroaren arreta hobetzeko, produktibitatea handitzeko eta inbentarioa optimizatzeko moduak	EQ System
2. Industriako Ikuskari Ikastaroaren III. Edizioa	EDE Ingenieros
3. Jardunaldia. Etorkizuneko Industriara bidaia: Nola eraiki etorkizuneko industria eredu lehiakorra inguru globalizatu batean?	INYCOM
4. Workshops: Lean Manufacturing eta Lean Project ziurtapena	Lean Institutua
5. Jardunaldi Teknikoa: Ke eta beroa kontrolatzeko sistemak. Presio-diferentzialen sistemak (UNE-EN 12101-6)	SODECA
6. Goi-tentsioko Instalazioetan baldintza tekniko eta segurtasun-bermeei buruzko Araudi berria. 337/2014 ED	FFII
7. Industria Eraikinetan Suteen kontrako Babes-instalazioen Diseinu, Mantentze eta Kudeaketan aditua	AIIEO
8. Diseinuan aditua, enpresan energiaren kontratazioa eta gas zein elektrizitate fakturen optimizazioa	AIIEO
9. Kalitate eta Ingurumen arloko Barne Ikuskari Integratua - ISO 9001:2015/ ISO 14001:2015	Bureau Veritas

ESPAZIOAK

2016 urtean jarraipena eman zaie 4. Solairuko prestakuntza espazioen berregokitze- eta egokitzapen-lanei.

Antolatutako jarduera ugarietarako eta prestakuntza mota ezberdinetarako espazio malgu eta egokiak edukitze aldera, altzari berriak jarri dira eta ikasgeletarako sarbidea egokitu da.



Halaber, 4. solairua bisita gehien jasotzen duen espazioa bilakatu dela kontuan izanik (elkargokideak zein programatutako jardueretara bertaratzen diren BIIEOtik kanpoko pertsonak), espazioa berrantolatu eta irudi berria eman zaio, bertan burutzen den jarduerari egokituta, estetika, seinaleztapen eta BIIEOko zerbitzuen aurkezpen berriak ezarrita.

2016an BIIEOk bere ikasgelak eta espazioak antolatu dizkie alokairu puntualean edo erdi-egonkorrean hainbat erakunde, enpresa, elkargokide eta partikularrei eta 30 ekitaldi, bilera, ikastaro, batzorde eta abar baino gehiago egin dira.

Alokairu horien ondoriozko diru-sarrerak **13.779 €**-koak izan dira; 2016koak baino **%51** handiagoak.

Era berean, elkargokideak hasi dira erabilera anitzeko espazioa erabiltzen, **TXOKOA**, beren ospakizun partikularretarako. Orain arte elkargoaren berezko jardueretarako erreserbatuta egon da, hala nola prestakuntza, abesbatza eta batzordeak.



2016an **9 erreserba** egin ziren, **73 pertsonari** arreta emanez.

Azkenik, 2016ko apirilean 3. solairuan erabilitako espazioa **Co-working** jarduerara bideratu zen, baina ez da oso erakargarria izan elkargokideentzat. **Erabiltzaile bakarra** izan da, **7 egunez** erabili ditu instalazioak eta 70 € ordaindu ditu. BIIEOk beste erabilera batzuk emango dizkio espazio horri 2017ko ekitaldian.

8. GIZARTE EKINTZA

Elkargoan gizarte arloan egin diren jarduerak azaltzen dira jarraian.

8.1. INGENIARITZAREN MUTUALITATEA

AMICekin sinatuta dagoen aseguru kolektiboaren produktuak indarrean eta eskuragarri jarraitzen du gure elkargokideentzat, baina LAABaren tresna alternatiboa izateko ahalmena galdu egin du, eta, hortaz, 7.6 atalean adierazi legez jardun behar da gaur egun.

2002an onartutako eraldaketa garrantzitsuaren ondoren, Mutualitateak heriotza edo baliaezintasun kasuetarako prestazioa soilik gordetzen du, eta horrek gure kolektiboaren barnean dauden aurreikuspen xedeak bete egiten ditu.

2016an ezbeharren kopuruak txikia izaten jarraitu du, kolektiboak duen egonkortasun maila ohikoen barnean, azken 5 urteak kontuan hartuta behintzat. Mutualitateak urtean sortu dituen prima gordinen guztizko zenbatekoa 833.560 eurokoa izan da. Horietatik Bizkaiko Elkargoko mutualistei 117.590 euro dagozkie (%14). Urte honetan 10 kasutan estali dira ezbeharrengatik prestazioak, 156.544 euroko zenbatekoagatik, eta horietatik 2 ezbehar Bizkaiko kideenak izan dira.

8.2. KULTURA ETA GIZARTE EKINTZA

BIZKAIKO INGENIARIEN MUSIKA ELKARTEA.

2016an zehar, Bizkaiko Ingeniarien Abesbatzak 17 Kontzertu eman zituen guztira.

Honako kontzertuak aipatu ditzakegu bereziki:

- ✓ Bizkaiko Abesbatzen 43. Astea, otsailaren 3an, Begoñako Andra Mariren Basilikan.
- ✓ Bizkaiko Industri Ingeniarien XIX. Urteurrena, maiatzaren 20an.
- ✓ EHUko Ingeniari graduatuei Diploma banaketa, apirilaren 19an, Euskalduna Jauregian.

- ✓ Zendutako kideen aldeko Ingeñarien Meza, maiatzaren 30ean, San Jose de la Montaña Elizan (Agustindarrak).
- ✓ V. Erljio-kontzertua, martxoaren 11n, Karmelo elizan, Gabriel Fauréren Requiem Mezaren interpretazioarekin.
- ✓ Granada Canta topaketaren II. Edizioan parte hartzea, ekainaren 3 eta 4an, gonbidatu gisa.
- ✓ Santa Cecilia Jaialdia, azaroaren 18an, San Jose de la Montaña elizan.
- ✓ Fair Saturday ekimenean parte hartzea, azaroaren 26an, Salvador elizan, Lagundi abesbatzarekin batera.
- ✓ Gabonetako kontzertua, abenduaren 23an, Indautxuko Karmengo Andra Mariaren Elizan.

Jarduera handiko taldea izaten jarraitzen du eta ingeniariak edo horien senideek parte har dezakete.

Bere web orrialdea du: <http://www.coroingenierosbizkaia.com/>. [Horrela, hedapen handiago ematen diete beren jardueri.](#)

BIDAIAK

Bidaia labur bat egin da **Proventzara**. 58 pertsonak hartu dute parte, eta oso arrakastatsua izan da.

Kanadako Mendebaldera bidaia egin da. 77 pertsonak parte hartu dute eta herrialdeko hiri eta leku turistiko nagusiak bisitatu dituzte. Bidaiarien asebetetzea handia izan da, hala adierazi zioten Batzordeari.

BURDINOLA KLUBA

hiru asterik behin txangoak egiten jarraitzen du Klubak. 2016an 12 txango egin ziren eta Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, Burgos eta Errioxako leku interesgarriak bisitatu zituzten. Horien artean, ekainean Gorramendi mendira, Baztanera egindako asteburuko txangoa aipatu behar dugu bereziki.

Oro har, jarduerak oso parte-hartze handia izaten ari dira, eta kidetasun-, ariketa-, natura- eta kultura-helburuak betetzen ari dira.

53 elkargokide eta 153 kidez osatutako taldea da eta 2017an kide gehiagok bat egitea espero dute, espiritu horrekin gozatzeko jarraitzeko.

8.3. ELKARTASUNA: IC-LI – Lankidetzarako Ingeniaritza

ICLIren **espíritu solidarioa** ez da itzali denborarekin. Pertsona berriek haize berriak ekarri dituzte eta duela 20 urte hasitako horiei lekukoa hartu diete. Gaur egun, ICLI kooperazioaren sektorean ondo finkatutako erakundea da.

ICLIk eboluzionatu egiten du garai berriekin batera.

Komunikazioa nortasun-ezaugarri bihurtu dute, eta era berean, gardentasun eta zintzotasuna adierazteko erabili dute. Sare sozialetan (facebook eta twitter) eta komunikabide publikoetan presentzia dute. Gure web orria eguneratu dugu –www.icli.info- eta bazkide, kolaboratzaile eta erakundeekin harreman ona mantentzen dugu. Proiektu berri eta handiagoak bideratzeko finantzaketa-modu desberdinak bilatzen saiatzen dira, bai garapenaren kooperaziorako, baita erakunderako ere.

ICLIk 20 urte bete ditu.

2016ko ekitaldiren bat bereziki nabarmendu beharko bagenu, zalantzarik gabe, **20. urteurrena** aipatuko genuke. Historiari errepasso labur bat eman genion eta pertsonen balioa nabarmendu genuen; hasiera batean amets soila zenari forma emateko gogor lan egin zuten pertsonena, proiektu solidario honetan sinesten jarraitzen duten pertsonena. *Innocent Mutabazik, Kabgayiko (Ruanda) Caritaseko Zuzendariak*, bisita egin zigun egun horietan, ekitaldian parte hartzeko, eta duela urte batzuk haiekin batera lantzen hasi ginen **Hezkuntza Proiektuaren** ikuspegi eta esperientzia partekatu zituen gurekin. *Iratxe eta Alaine* kooperanteek eman zioten amaiera ekitaldiari eta Ruandan hiru hilabetez bizi izandako esperientziaren berri eman ziguten, **Kabgayiko Kalteberatasunari buruzko Azterketaren** bidez.

Proiektu mailan, boluntario berriak hasi direnez, ohiko deialdietatik harago ere lanerako gaitasun handiagoa eduki dute. Horrela, aurten **15 proiektu** inguru aurkeztu dira eta orain arte lau onartu dira. Zenbatekoa: **70.000 €**. Guztiak Afrikan: Ruandan, Beninen eta bi Kongoko Errepublikan Demokratikoan Beste bost daude ebazteke, eta horrekin batera beste 105.000 €-ko zenbatekoa izango litzateke. **Haur eta emakumeen** babesean eta **hezkuntzan** zentratzen dira batez ere, herri horien garapena finkatzeko oinarri moduan.

Hala ere, Hegoaldean egin beharreko lana bezain garrantzitsua da Iparraldean egin beharreko sentsibilizazioa; horregatik, erakundeek gero eta gehiago eskatzen dute finantzatzen dituzten GKE horiek tokian bertan presentzia izan dezatela. Horren ondorioz, orain errazagoa da *Azoka Solidario*etan ikustea – udalak, unibertsitateak...- edo beste erakunde batzuekin elkarlanean, leku gehiagotara heldu ahal izateko.

Eskerrik asko ondoan dauden **persona** guztiei, laguntza eman eta elkartasuna adierazteagatik. Zuen presentziak proiektua handiago egiten du.

8.4. EUSKAL KULTURA

EKB (Euskal Kultura Batzordea) Elkargoa euskararen aldeko jarduerak antolatzeaz arduratzen da, eta elkargokideei zerbitzua ele bietan eskaini ahal izateko lana kudeatzen du.

Kudeaketa Linguistikoaren arloko Bikain Kalitate Ziurtagiria

2016an lehen aldiz aurkeztu gara Bikain Ziurtagiriaren ebaluaziora, Kudeaketa Linguistikoaren Kalitatea neurtzeko. Ekainaren 15ean eskaera aurkeztu genuen Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailean. Bikain kanpo-ebaluazio zerbitzurako, Elkargoak langile bat aukeratu du, kanpo-ebaluazio prozesuak iraun bitartean Bikainen organo kudeatzailearekin solaskide lanetan jardun dezan eta 2016ko Ebaluatzaileen Klubeko parte izan dadin. Aukeratutako pertsona horrek prestakuntza-modulu bat egin du irailaren 15 eta 22an. Ondoren, azaroaren 23an, ebaluatzaileen klubeko hiru kide Elkargora etorri dira ebaluazioa egiteko, eta prozesua abenduan bukatuko zen, Oinarrizko Maila lortu eta Donostiako Kursaal Jauregian ziurtagiria batu egin ondoren.

Bai Euskarari Ziurtagiria

2016an BIIEOk Bai Euskarari Ziurtagiriaria berritu du. Horretarako, Ziurtagiriaren Elkarteak 2016ari dagokion ebaluazioa egin zuen azaroaren 17an, eta "zerbitzua euskaraz" berriztatzea lortu dugu.

Mazarredotik

Euskaraz irakurtzeko zaletasuna areagotu eta elkargokideei informazioa bi hizkuntzetan emateko asmoz egiten da.

Aurten, aurreko urteetan bezala, elkargokideen artean bi ale, 41. eta 42. Zenbakiak, banatu dira. Bertan islatzen dira Elkargoari eta Elkarteari dagozkion jarduerak, Batzorde honek jasotakoak.

Hitzaldiak

Aurten, otsailean, Karmelo Ayesta Sagarduy Elkargokideak "Euskaldun baten hizkuntza bidaia" hitzaldia eskaini zuen euskaraz. Aurten hitzaldi bat antolatu da:

Hitzaldiak	Fecha	PONENTE
Euskaldun baten hizkuntza bidaia	2016/03/16	Karmelo Ayesta Sagarduy

Euskarazko Kontakizun Lehiaketa.

Elkargokideentzat eta euren senideentzat antolatzen dugun Euskarazko Kontakizunen Lehiaketaren XX. edizioa izan dugu 2016an. Idazlan saridunak gure Webgunean argitaratu dira.

Ikasketa Amaierako Proiektua euskaraz

Industri Ingeniarien titulazioko Karrera Amaierako Proiektua euskaraz egin duten Bilboko Ingeniaritza Teknikoko Goi Eskolako ikasleek, elkargokide bihurtu eta gero, diru laguntza jaso dute.

Klasikoen irakurketa jarraitua

Ohiko denez, Bilbo Zaharra Euskaltegiak Arriaga Antzokian burutzen duen klasikoen irakurketa jarraituan parte hartzen du BILEOk. Horrela izanik, 2016ko ekainaren 9an, ekimen horren 8. Edizioan, Frank Kafkaren 'Metamorfosia' lanaren irakurketa egin zen. Ander Basaldua eta Isabel Larrakoetxea elkargokideek parte hartu zuten.

Diru-laguntzak

Erakundeei hiru diru-laguntza eskaera egin zaizkie: Bilboko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza. Hiru erakundeek eman digute laguntza, euskara plana garatzeko. 2016aren hasieran proiektua eta aurrekontua aurkeztu genituen.

8.5. BGAE

Araba eta Gipuzkoako Elkargoekin batera daukagun BGAEak honako urteko errentagarritasuna aurkeztu du:

	Errentagarritasuna	Bazkide kopuru osoa	Prestazioak
Ingeplan	% 1,81	698	332.622
Planinge	% 1,92	841	24.435
Ingeplan Monetario	-% 0,32	32	9.659

Apirilaren 14an Ezohiko Batzordeak onartu egin zuen Estatutuak eta Arautegiak aldatzea erakunde horien Araudi berriak eskatzen zituen aldaketan arabera. Era berean, Eusko Jaurlaritzaren dagokion Sailak onartutakoak izan dira.

8.6. DYNA ALDIZKARIA

2016a aurrekontuan aurreikusitakoa baino hobeto joan da. 2016ko ekitaldiko emaitza-kontuak 529 €-ko emaitza aurkeztu da.

Aurrekontua hobetu egin da, beraz, eta horren arrazoia zera, funtsean: 2015eko ekainetik aurrera baterako ordainketa dela eta izandako diru-sarreraren igoera, langile batek etxeko istripua bat izatearen ondoriozko laneko baja luzeen ondoriozko gastu-murrizketa, paperezko aldizkariaren harpidetzak mantentzea eta hobekuntzarako aurreikusitako inbertsioen exekuzioaren atzerapena (on-line ebaluazioa, webgunea mugikorreko bertsiora egokitzea). Aurreikusitako azken itxieratik honako gastuak gehitu dira: ikuskaritzako 1.300€; 2016ko abenduko banaketako 2.000€; eta kobrantza berankorren galeratzat hartutako 3.000€

Aurten burututako hobekuntza tekniko batzuk honakoak izan dira: Aldizkarietako batzuk Google Scholar indexaziorako egokitzea, sostengu eta probarako zerbitzari berria instalatzea, gaztelania eta ingeleseko artikuluetarako open access egokitzea, daten araberrako izen-emateak kontrolatzea, XML formatuko Recyt artikulua esportatzea eta abar.

Ekainean argitaratutako azken JCR txostenaren Eragin Faktorea hobetzeak (0,179tik 0,302ra igaro da) egileen baterako ordainketaren igoera ekarri du: 372€-tik 425€-ra pasa da artikulua edo kolaborazio bakoitzeko, 198€-tik 325€-ra ohar tekniko bakoitzeko eta 250€-etik 300€-ra azkartutako zerbitzu bakoitzeko.

Aldizkari digital berrietarako datu-base espezializatuen indexazioaren prozesuari ekin zaio, eta honako datu-baseetan txertatzea lortu da:

- **DYNAES:** Google Scholar, MIAR, Latindex katalogoa (35/36), Dulcinea, Microsoft Academic
- **DYNAMN:** Google Scholar, MIAR, ERIH PLUS, Latindex katalogoa (35/36), Dulcinea, Microsoft Academic
- **DYNANT:** Google Scholar, MIAR, Latindex Katalogoa (35/36), Dulcinea, Microsoft Academic

Aurten FECYT kalitate-zigilua berrizatzeko deialdira aurkeztu da DYNA eta dagokion ikuskaritza pasatu du. Beraz, aldizkariak bikaintasunaren zigilua lortu du hirugarren urtez.

9. KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIO SISTEMAK

BIIEOk komunikazioa eta kontaktua dauka elkargokideekin eta atxikitakoekin, modu hauetara:

- BIIEOren Webgunea eta App
- Buletinak eta Albistek
- Sare Sozialak

BIEOren WEBGUNEA ETA APP

Elkargoak Web orrian eskaintzen ditu bere elkargokideek aurrez aurre balia ditzaketen zerbitzu ia guztiak. Horrela ingeniari guztiek daukate zerbitzu hauetarako sarbidea: On-line elkargokidetzea, Ikus-onespen elektronikoa eta bestelako tramitazioak, Ikastaro eta Hitzaldietarako lizen ematea, On-line Denda...

Era berean, webgunea etengabe eguneratzen ari da elkargokideei intereseko informazioa emateko.

Estatistikak

	Bisitak	Ikusitako orriak	Batez besteko denbora	Saio berrien %
2014	55.366	248.417	3,54 min.	49,15
2015	76.115	282.926	3,72 min.	54,00
2016	83.271	322.104	2,41 min	53,67

APP-BIEO.

Gure elkargokideek eskura duten mugikorretarako aplikazioak (Android eta Apple) honako estatistika hauek eman ditu:

	Instalazio aktiboak	Instalazioak guztira
Android	170	300
IOs	60	150



Aplikazio horrek menu garrantzitsuenak dauzka, elkargokideak BIEOren zerbitzuak eskura izateko arin eta erraz, edozein lekutatik, interneterako konexioa duen dispositibo mugikor batetik.

BULETINAK ETA ALBISTEAK

2016an **140 albiste** argitaratu dira guztira; **43 Albiste-buletinen** eta albiste garrantzitsuenetarako **12 jakinarazpen** espezifikoren bidez helarazi direnak.

Era berean, **Enplegu Buletinak** ere egiten dira, zerbitzu horretan izena ematen duten elkargokideei bereziki zuzenduak.

Era berean, **Teknologia eta Prestakuntza Sailaren** izenean jakinarazpenak egiten dira aldian-aldian, prestakuntza-programaren barruan garatzen diren jardueren inguruan berri emateko. 2016an **42 jakinarazpenetik** gora egin dira, gure elkargokideen interesekoak izan zitezkeen ikastaro, hitzaldi, jardunaldi, prestakuntza-erakundeekiko kolaborazio eta abarren inguruan.

SARE SOZIALAK

Elkargoa **LinkedIn** eta **Facebook** sare sozialetan dago. Bertan, gure berri eta jarduerarik garrantzitsuenak eta interesgarrienak helarazten dizkiegu elkargokideei eta gure jarraitzaileak diren eta horietan parte hartzen duten profesionaleri.

2016 urtearen amaieran 577 kide genituen linkedin taldeko profilean eta BIIEOren administrariaren 5.000 kontaktu. BIIEOren Facebook orrialdeak dituen 268 jarraitzaileei batuta, **5.845 jarraitzaile** ditugu.

Era berean, 2016an, informazio sistemiei dagokienez, honako aspektuak hobetu dira:

- **4.04 gela:** Prestakuntza ikastaroetarako ikus-entzunezkoak jarri dira.
- **4.06 gela:** sare-azpiegiturak jarri dira (gigabit Ethernet), 16 ordenagailuak aldi berean konektatu ahal izateko.
- Dyna aldizkariaren zerbitzaria birtualizatu da eta sistema gainbegiratu eta kontrolatzeko laguntza eman da.
- Komunikazio arloko kostuak behetik negoziatu dira berriz, bai datuei dagokienez, baita telefoniari dagokionez ere.

10. HARREMAN ETA JARDUERA INSTITUZIONALAK

- **Industri Ingeniarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusia eta Espainiako Ingeniari Industrialen Elkarten Federazioa.**

Bi erakundeek elkarrekin egin dute lan Industria Ingeniarien titulazioa Master titulazio gisa aitortua izan dadin, eta MECES 3 maila espainiarrarekin eta EQF7 europarrarekin parekatu dadin, 2015eko uztailan lortu direnak.

- **Eusko Jaurlaritza:**
 - **Industria Segurtasuneko Kontseilua**, BIIEOren Zuzendaritzak Euskal Herriko Ingeniari Industrialen Kontseiluaren ordezkariak dauka.
 - **Gizarte Aurreikuspeneko Euskal Kontseilua**, urte honetan sortutakoa, gure BGAEko presidentea kidea da, Federazioaren erakundearen ordezkaria.
 - **Ingurumen Saila eta Ihobe:**
 - Eraikuntza eta **Eraispen Hondakinen Kudeaketako** Azken Txostenen Egiaztapenerako Arauen aplikazioa, 112/2012 Dekretuaren arabera.
- **Bilboko Udala, Hiri Kontseiluan parte hartuz.**
- Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoarekin eta Deustuko Ingeniaritza Fakultatearekin:
 - Prestatutako ikasketa planei laguntza eta babesa.
 - Bilboko IGETk antolatutako Enplegu Jardunaldietan parte hartzea.
 - EHUko Ingeniaritza Kimiko eta Ingurumen Sailarekin, Jardunaldi Teknikoen Antolakuntzan.
- **Euskalit**, Kudeaketa Aurreratuaren Europako Astean parte hartuz, honako jardunaldiarekin: «*Nola ezarri industria kudeaketa aurreratua ingeniari gazteen laguntzaz: Unibertsitatea-Elkargoa-Enpresak eragileen arteko lotura*»
- **Bilbao Metropoli 30, BasquePro** ekimenaren barnean.
- **Ingeniarien Eskolaren Fundazioarekin**, jarduna 1998an hasi zuena, bere Patronatuan parte hartuz.
- **Tecnalia Certificación**, Eraikuntzako Produktuak Egiaztatzeko Batzordeko kide modura.
- **Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberarekin**, bere jardueretan, Arbitraje auzitegietan eta enpresen arteko bitartekariak prozeduretan lagunduz.
- **Egurtek 2016**, Egurraren eremuko arkitektura eta eraikuntzaren inguruko topaketa, urriaren 20 eta 21ean egindakoa. Antolakuntza batzordean parte hartu genuen, beste erakunde batzuekin batera.